

# BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

## IDATZIZKO AZTERKETA

### A eredua

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu.
- **2h 5 min.** dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

Proben ezaugarriak	Aurreikusitako denbora	Puntuazioa (gehienez)	Puntuazioa (gutxienez)
<p><b>IRAKURMEN PROBA</b></p> <p>Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira.</p> <p>Hiru irakurgai dira eta guztira 34 item.</p> <p>Lehenengo eta hirugarren ariketetan item bakoitzak 0,8 puntu balio du eta bigarreanean 0,4 puntu.</p> <p>Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</p> <p>Testuen luzera guztira: 1.500 hitz gehienez.</p>	50 min.	20	10
<p><b>IDAZMEN PROBA</b></p> <p>Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu).</p> <p>Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</p>	75 min.	30	15

- **Irakur itzazu** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.

## 2. HE

## IRAKURMENA

### ■ 1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderari.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

### FAMILIA ETA LANA BATERATZEKO NEURRIAK

Familia eta lana bateratzeko zenbait neurri aurkezten dizkizuegu, Administrazioaren beharrei eta bertan lan egiten duzuen langileon premiei hobekien egokitzen zaizkienak aplikatu ditzazuen.

**Ordutegi malgua.** Lanaldia zer ordutan hasi eta amaitzen den aukera dezakete langileek, aldezturik adostutako ordutegi-tarte baten barruan, eta betiere lan-orduak betez. Horrela, autonomia handiagoa izango dute beren denbora kudeatzeko, eta familia eta lan-erantzukizunak bateragarri egiteko arazoak gutxiagotu egiten dira. Lanera sartzeko (adibidez, 08:00etatik 09:00etara bitartean) eta irteteko (adibidez, 17:00etatik 18:00etara bitartean) ordutegi-tarte bat ezarri behar da. Neurria modu desberdinetan jar daiteke abian, sailaren jarduera, ordutegia, langileen lanpostuak eta abar kontuan izanda, baina gomendagarria da bestelako neurri batzuekin konbinatzea; adibidez, areto-jangela edo espazio bat sortzea, bertan langileek etxetik dakarten janari prestatua har dezaten, eta horrela, bazkaltzeko atsedena laburtu daitezke.

Horretarako, hona hemen zenbait gomendio: zehaztu sarrera- eta irtetea-orduen tarteak, bai lanaldietan, baita trinkoetan ere. Zehaztu ordutegi-tartea, lanpostuan nahitaez egon beharrekoa. Zehaztu bazkaltzeko denbora-tartea, eta bazkaltzeko gutxieneko eta gehieneko denbora ezarri; adibidez, gutxienez 30 minutu eta gehienez ordubete.

**Ordu-poltsa.** Langileak lan-denboraren tarte bat har dezake bere familiaren eta laneko beharren arabera erabili ahal izateko. Horrela, Administrazioaren aldeko lan-orduak pilatzen ditu, hau da, lanordu gutxiago egiten du hilean, baina lanaldi osoari dagokion soldata hartzen du. Administrazioari zor dizkion ordu horiek pilatzen ditu, eta larrialdietan, lan-karga handiagoa dagoenean, goi-denboraldietan eta abar, Administrazioak erabili egin ditzake.

Ordu-poltsak onuragarriak izan daitezke Administrazioarako, lan-kargari aurre egin ahal izango baitio, aparteko ordurik behar izan gabe; eta batez ere onuragarria da langilearentzat, lanaldia antolatzeko malgutasun handiagoa daukalako. Neurri honen beste aldaera batean, langileak ordu gehiagotan egiten du lan; eta ordu horiek pilatu egiten dira, ondoren horien truke, ordu eta egun libreak hartzeko.

Komeni da ordu-poltsarako gehienezko ordu-kopurua zehaztea, eta aprobetxatzeko epea finkatzea.

**Ikasturtean edo eskola-ordutegian lan egitea.** Gurasoen arazo nagusietako bat, seme-alabak eskolatzen direnean, bi alderdien egutegiak koordinatzea da; bereziki txikiak eskolaz kanpoko jardueretara lagundu behar direnean, edo eskola-oporraldiak iristen direnean.

Neurri honen bidez, eskola-adinean dauden seme-alaben ordutegiarekin bateragarriak diren ordutegia eta egutegia diseinatzen dira. Horrela, oporrak, lanaldia laburtzea edo eszedentziak eska daitezke eskola-oporraldietan, eta ikasturtean lanaldia ikastetxeko ordutegiari egokitu ahal zaio. Horrelakoetan soldata murriztu egiten da lan egindako orduen proportzioan. Gomendatzen da aldezturik gutxieneko epeak ezartzea, lana era egokian planifikatu ahal izateko.

**Argiak itzaltzeko politika.** Lanaldia bukatzeko ordua heltzen denean, argiak itzaltzen dira eta langileek lanpostuetatik joan behar dute. Salbuespen moduan lanaldia luzatu behar izanez gero, horretarako arrazoia eman behar da. Praktika hau ohikoa da Europako erdialdeko eta iparraldeko enpresetan. Gomendatzen da prozedura metodikoa izatea eta salbuespenak ahalik eta gehienetan saihestea.

<gizartelan-ejgv.euskadi.net> Egokitua.

## 2. HE

## IRAKURMENA

### ■ 1. ariketa. Aukeratu erantzuna.

---

1. **Zeri esaten zaio ordutegi malgua ezartzea?**
  - a) Lan-orduen kopurua Administrazioarekin adosteari.
  - b) Langileak berak erabakitzeari sartzeko eta irteteko ordua.
  - c) Administrazioak zehazteari lan-ordutegia.
2. **Zer lortu nahi da ordutegi malguaren neurriaren bitartez?**
  - a) Langileak lanaren erantzukizun handiagoa hartzea.
  - b) Batez ere langileak bete beharreko lan-orduak gutxitzea.
  - c) Langilearen bizitza eta lana errazago bateratzea.
3. **Zer hartu behar da kontuan ordutegi malgua ezartzeko?**
  - a) Nahikoa da langilearen lana zein den jakitea.
  - b) Beharrezkoa da lantokian areto-jangela bat egotea.
  - c) Komeniko litzateke beste neurri batzuekin batera egitea.
4. **Zer komeni da ordutegiaren neurria praktikan jartzeko?**
  - a) Ordutegi-tartea eta bazkaltzeko denbora zehaztea.
  - b) Lanaldia etena ala trinkoa den bereiztea.
  - c) Bazkaltzeko denbora-tartea ordubeteko izatea.
5. **Zein da ordu-poltsaren funtzionamendua?**
  - a) Langileak lan-karga handiko sasoiarako gordetzen ditu lan-orduak.
  - b) Administrazioak bere beharretarako erabil ditzake langileak zor dizkion orduak.
  - c) Administrazioak langileari aparteko orduak ordaintzen dizkio.
6. **Ba al du alde onik ordu-poltsaren neurriak?**
  - a) Bai, ona da langilearentzat zein Administrazioarentzat.
  - b) Egokia da Administrazioarentzat, baina ez langilearentzat.
  - c) Komenigarria da langilearentzat, baina Administrazioari ez dio mesederik egiten.
7. **Zein da eskola-egutegian lan egitearen helburua?**
  - a) Gurasoek eskolaz kanpoko jardueretan parte-hartzea handitzea.
  - b) Soldata jaitsi gabe, lanaldia laburtzea eta eszedentziak hartzea.
  - c) Eskola-adinean seme-alabak dituzten gurasoen arazoak gutxitzea.
8. **Zer dakigu argiak itzaltzeko politikari buruzko neurriaz?**
  - a) Lanaldia bete egin behar dela eta ordu gehiegi egitea ez dela ohitura izan behar.
  - b) Nahi duenean, noiznahi hautsi dezakeela langileak neurria.
  - c) Europako erdialdeko eta iparraldeko enpresetan salbuespena dela neurria.

**GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN**

## 2. HE

## IRAKURMENA

### ■ 2. ariketa

**Hutsuneak bete.** Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

### ZALDIAK: SENDABIDE ETA IKASBIDE

Garraiorako, baserriko lanetarako, okelatarako edo aisialdirako erabili izan da zaldia gure kulturaren. Erabilera horiez gain, beste erabilera batzuk ere baditu. Alde batetik, ekinoterapia edo zaldi-terapia gero eta gehiago ari da zabaltzen Euskal Herrian zehar, eta bestetik, zaldiek \_\_\_1\_\_\_ *coaching*-saioak ere egiten dira, lidergoa, talde-lana eta komunikazioa lantzeko saioak dira, eta horiek ere gero eta indar gehiago hartzen ari dira. \_\_\_2\_\_\_, sendabide eta ikasbide ere izan daiteke zaldia. Eta horretan dihardu, hain zuzen ere, Jon Elortza oñatiarrak, zaldien alde terapeutikoa eta \_\_\_3\_\_\_ lantzen. Hasi besterik ez da egin, baina proiektu interesgarria du esku artean.

Zaldi-terapia \_\_\_4\_\_\_ fisiko, neurologiko edo emozionalak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko da, zaldia erabiliz aplikatzen den errehabilitazio-teknika baita. Hiru \_\_\_5\_\_\_ nagusi ditu zaldi-terapiak. Lehenengoa, zaldiaren gorputzaren berotasuna. Ia 39 graduko temperatura izaten du zaldiak, eta berotasun horri esker, erlaxatu egiten dira zaldi gainean doanaren \_\_\_6\_\_\_ . Oso lagungarria izaten da muskuluak gogortuta dituzten pertsonentzat. Fisioterapeuta baten lana egiten du, nolabait esatearren, eta berotasun-efektu horren \_\_\_7\_\_\_ sei bat orduz luzatzen da.

Zaldiaren ibiltzeko moduan datza terapia mota honen bigarren printzipioa. Zaldien ibiltzeko modua eta pertsonok duguna oso antzekoa da, azaldu digu Jonek. Horregatik, oso \_\_\_8\_\_\_ da, adibidez, paralisia duten pertsonentzat; oinez ibiltzea bezala da, baina eserita, eta bien bitartean gure \_\_\_9\_\_\_ ibiltzearen patroiak ikasten ditu, zaldiak bidaltzen dizkion estimuluen bidez.

Zaldiaren taupadak dira terapiaren hirugarren printzipioa. Zaldiaren pelbisak 90-100 bulkada edo inpultso bidaltzen ditu minutuko gure bizkarrezurrera, eta horrek estimulazio neuromuskularra eragiten du. Gainera, \_\_\_10\_\_\_ eusteko egin behar dugun lanari esker, bizkarrezurra eta gerialdea \_\_\_11\_\_\_ laguntzen du, azaldu digu Jonek.

Zaldi-terapiak ez ditu gaixotasunak sendatzen, baina \_\_\_12\_\_\_ nabariak ikusten dira, eta oso azkar gainera, bai maila fisikoan, baita emozionalean ere. Zaldi gainera igotzen dena oso pozik eta oso motibatuta egoten da; ondorioz, eragin positibo handiagoa eta azkarragoa lortzen da beste ohiko terapia batzuekin \_\_\_13\_\_\_ . Zaldi gainean gaudenean, gure gorputzeko ehun bat muskulu mugitzen dira modu pasiboan, eta horri esker, tonu muskularra erregulatzen da, koordinazioa lantzen da, eta arnasketa-sistema ere hobetzen da, \_\_\_14\_\_\_ .

Gainera, zaldiarekin sortzen den lotura afektiboa dela eta, autoestimua eta autoconfiantza sendotzen dira, antsietatea murrizten da, komunikaziorako eta harremanetarako \_\_\_15\_\_\_ hobetzen da. Zaldi baten gainean beste perspektiba batetik ikusten dira gauzak. Eskolan eta kirolean beti atzean gelditzen den ume bat zaldi gainera igotzen denean, errege sentitzen da. Frogatuta dago zaldi-terapia aproposa dela arazo fisikoak, arazo psikikoak eta \_\_\_16\_\_\_ -arazoak dituztenak kontrolatzeko edo hobetzeko, terapia \_\_\_17\_\_\_ gisa. Zaldi-terapia pertsona guztientzat da mesedegarria, baita inolako \_\_\_18\_\_\_ ez dutenentzat ere, eta adin-mugarik gabe. Baina, batez ere haurrekin eta gazteekin aplikatzen da, onera egiteko aukera handiagoa dutelako; hau da, zenbat eta lehenago hasi terapiarekin, hobeto.

Kontzejupetik, 2012ko urtarrila. Egokitua.

**2. HE**

**IRAKURMENA**

**■ 2. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia.**

- |  |  |   |
|--|--|---|
| 1. a) ohartutako<br>b) saiatutako<br>c) lagundutako<br>d) abiatutako | 2. a) Hau da<br>b) Berriz<br>c) Badaezpada<br>d) Azkenik               | 3. a) hautagaia<br>b) hezitzailea<br>c) lehiakidea<br>d) aztertzailea |
| 4. a) gabezia<br>b) ezuste<br>c) gertaera<br>d) egitura              | 5. a) emaitza<br>b) harrera<br>c) oinarri<br>d) esanahi                | 6. a) irainak<br>b) garrasiak<br>c) akatsak<br>d) giharrak            |
| 7. a) ustea<br>b) baimena<br>c) eragina<br>d) kopurua                | 8. a) sinesgarria<br>b) onuragarria<br>c) ezaugarria<br>d) ikaragarria | 9. a) garunak<br>b) zainak<br>c) konorteak<br>d) nortasunak           |
| 10. a) aitzakiari<br>b) arauari<br>c) kezkari<br>d) orekari          | 11. a) igarotzen<br>b) indartzen<br>c) eransten<br>d) adierazten       | 12. a) iraupen<br>b) sorkuntza<br>c) onarpen<br>d) aurrerakuntza      |
| 13. a) atzeratuta<br>b) asmatuta<br>c) eskainita<br>d) alderatuta    | 14. a) besteak beste<br>b) ordea<br>c) horretarako<br>d) hala ere      | 15. a) adimena<br>b) irtenbidea<br>c) gaitasuna<br>d) ondasuna        |
| 16. a) sailkapen<br>b) ibilbide<br>c) itzulpen<br>d) portaera        | 17. a) osagarri<br>b) zaintzaile<br>c) aldakor<br>d) susmagarri        | 18. a) gogoetarik<br>b) gaitzik<br>c) aditurik<br>d) jatorririk       |

**GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN**

## 2. HE

## IRAKURMENA

### ■ 3. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu **testu zatia** dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

**Testu zati bat sobera dago.**

## KOMUNITATEAREN HERRIA

Nafarroa lurralde anitza da. Eta lurraldeko jendartea ere ugaria da. Oro har, herritarrak jendarte-eredu zehatz baten azpian bizi dira. Baina badira bizimodu horren aurrean bestelako aukera bat egin eta beste jendarte mota batean bizi diren herritarrak ere. Horren adibide dugu Lakabe. Orain dela 33 urte gazte-koadrila batek hutsik zegoen herria okupatu eta jendarte-eredu berri bat sortu zuen.

Ametsak egia bihurtzea ez da lan erraza izaten. Baina proiektu batean sinesten denean, gauak eta egunak ematen dira lortu arte. Lakaben (Artzibar bailara) lehen aldiz elkartu ziren gazteek esperientzia hori bizi izan zuten. Helburu bera zuten: hainbestetan amestu, hitz egin eta teorizatu zuten mundua eraiki nahi zuten.

1

Gazte-koadrila haren mundu utopia landetxe batean gauzatu zen, naturaren bihotzean. Herriko kaleak, 50-60ko hamarkadetan gertaturiko landa-exodoaren erruz, mututu egin ziren. Herria abandonaturik zegoen. Horregatik, amesten zuten mundu utopikoa Lakaben eraikitzea erabaki zuten; 1980ko martxoaren 21ean hasi sen okupazio-prozesua. Lakabeko etxeak eskuz zaharberritu zituzten. Auzolanean eraiki zituzten kaleak eta etxe berriak ere. Urrats txikiak emanez, herri txikia handi bihurtu da. Ametsa bete egin zen: bakardadea eta proiektuan buru-belarri aritzea izan dira gakoak.

2

Gaur egun hamar bat etxek osatzen dute herria. Horien artean autoak konpontzeko tailerra, burdina lantzekoa, bisitarientzako etxea, gaztetxea, okindegia, harategia eta liburutegia dituzte. Herriaren historia laburrean, bizilagunen joan-etorria handia izan da. Gaur egun 50 lagun inguru bizi dira komunitatean. Etxe bakoitza ez da familia bakarrarentzat, denak bizi dira elkarrekin.

3

Asanbladak dira herriaren garuna. Astean bitan elkartzen dira. Hitzordu bakoitzak helburu desberdina du.

4

Nola dauden galdetzen diote elkarri. Herritarren artean egon daitezkeen arazoak konpontzen saiatzen dira. Birrikak, berriz, ekonomiak osatzen ditu. Langabeziaren mamuek nekez ezagutuko dute herria. Herritar bakoitzak bere zeregina du: adibidez, batzuek baratzeetan jarduten dute lanean; beste batzuek, berriz, herriko okindegian.

5

Beste batzuk, adibidez, urtean eskaintzen dituzten ikastaroak dira: ogiak nola egiten diren irakasten dute, nekazaritza ekologikoa nola landu, eta abar. Baratzeetan eta negutegian bildutako barazkiak biltegi batean gordetzen dituzte. Ondoren, bizilagun bakoitzak behar duena hartzen du. Gauza bera egiten dute animaliekin.

6

Natura da Lakaberen bihotza. Hasieratik, ekologia izan dute iparrorratz. Beren bizimodua naturan txertatu dute. Hasieran, kandelen suak argitzen zituen etxeak, baina, azkenean, pauso bat gehiago eman eta argindarrez hornitu zuten Lakabe. Energia naturala erabiltzen dute: eguzkitik, haizetik eta ur korrontetik. Ura berotzeko eguzki-plaka berezi batzuk erabiltzen dituzte. Hondakinekin ere neurri bereziak hartzen dituzte.

7

Gainerakoa, gauza bakoitzari dagokion edukiontzian botatzen dute birziklatzeko.

Gaur egun 15 haur daude Lakaben. Artzibarrenen ikasten dute eta hazten direnean, Garraldara joaten dira. Baina haurrak eta gazteak ez dira ikasten ari diren bakarrak, helduek ere eskolak hartzen dituzte; esate baterako, euskara-eskolak. Bestalde, dokumentalak ikusi edo testu interesgarrien irakurketak egiten dituzte, eta ondoren, guztien artean eztabaidatzen dituzte.

8

ALMORTZA, Arkaitz. Aizu, 2013ko urtarrila. Egokitua.

**■ 3. ariketa. Txertatu testu zatia.**

- A.** Antzera hasi ziren talde askok porrot egin zuten bisitari asko jaso zituztelako; izan ere, sortzen den gauza guztia ahula izan daiteke kanpoko eraginaren aurrean.
- B.** Lehenengo bileran, herriaren inguruan hartu beharreko erabakiak hartzen dituzte; eguneroko elkarbizitza arautzen dute. Bigarrenean, berriz, emozioak lantzeko baliabideak jorratzen dituzte.
- C.** Bestelako jendarte batean bizi nahi zuten, norbanakoa, natura eta komunitatea ardatz izango zituen sistema berri batean. Ideia horiek guztiek bultzaturik, gogoz ekin zioten beren ametsari.
- D.** Astean bitan, eskuz egiten duten ogia bizilagunen artean banatzen dute, eta gainerakoa Iruñerrian saldu. Herriko diru-iturrietako bat da ogiaren salmenta.
- E.** Bide bera jarraitu du: herria okupatu eta bestelako jendartea sortu dute bertan.
- F.** Irabaziak eta baliabideak berdintasunean banatzen dituzte. Aipatzekoa da sistema horrekin batera trukeak ere sarritan egiten dituztela, hau da Lakabetik kanpoko lagunekin produktuak trukatzeko dituzte.
- G.** Horretan ere, komunitatearen ideia garrantzitsua da: kanpora ikastaro bat egitera joandako herritarrek gainerakoei irakasten die ikasitakoa.
- H.** Guztia ahalik eta gehien berrerabiltzen dute: txerriek zabor organikoa jaten dute eta gainerakoarekin konposta egiten dute. Bestalde, erabilitako olioak garbitu eta autoetarako erabiltzen dute.
- I.** Bakoitzak erabakitzen du non eta norekin bizi nahi duen. Horregatik, tarteka, etxez ere aldatzen dira.

**Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:**

<b>Hutsuneak</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>6</b>	<b>7</b>	<b>8</b>
<b>Testu zatiak</b>								

**Sobera:**

**GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN**

## 2. HE

## IDAZMENA

### Oharrak:

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Idatzi garbi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan hauexek hartuko dira kontuan:
  - eskatutako guztiari erantzun diozun,
  - ideiak garbi adierazi dituzun,
  - euskara nola erabili duzun: egoki, zuzen edota aberats.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.**

**ARIKETAK, HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN  
EGIN BEHAR DITUZU.**



### ■ 1. ariketa

Gaia kontuan hartuta, **eskutitza** idatzi behar duzu.  
Gutxienez 125 hitz idatzi behar dituzu.

**GAIA:** Zuen zerbitzuko administraria zara. Material-eskaera bat egin zenion enpresa bati. Dena ez da heldu, eta heldu dena egoera txarrean.  
Idatz iezaiozu enpresari sortu den arazoa azaltzeko, zer eskatu zenuen eta noizko behar duzun gogorarazteko, eta konponbidea eskatzeko.

### ■ 2. ariketa

Gaia kontuan hartuta, **iritzia** eman behar duzu **herriko aldizkarian**, *Herritarren txokoa* sailean.  
Gutxienez 125 hitz idatzi behar dituzu.

**GAIA:** Zure herrian Udalak liburutegi handiago bat egiteko asmoa du. Zuk beharrezkoago ikusten duzu haur-eskola bat egitea.  
Lanak hasi baino lehen, herriko aldizkarian zure iritzia ematea erabaki duzu.  
Idatzi zer gertatu den, zer proposatzen duzun eta zergatik.

**Zirriborroetarako lekua (orri hau ez da zuzenduko)**

**Zirriborroetarako lekua (orri hau ez da zuzenduko)**



## 2. HE / IRAKURMENA

- 1. ariketa: aukera anitzeko galderak.
- Irakurgaia: « FAMILIA ETA LANA BATERATZEKO NEURRIAK »

1.	B	5.	B
2.	C	6.	A
3.	C	7.	C
4.	A	8.	A

- 2. ariketa: hutsuneak bete.
- Irakurgaia: « ZALDIAK: SENDABIDE ETA IKASBIDE »

1.	C	2.	A	3.	B
4.	A	5.	C	6.	D
7.	C	8.	B	9.	A
10.	D	11.	B	12.	D
13.	D	14.	A	15.	C
16.	D	17.	A	18.	B

- 3. ariketa: sartu testu zatia dagokion hutsunean.
- Irakurgaia: « KOMUNITATEAREN HERRIA »

Hutsuneak	1	2	3	4	5	6	7	8
Testu-zatiak	C	A	I	B	D	F	H	G

**E aukera sobera dago.**

